

# 1936KO GERRA EUSKAL NOBELAGINTZAN: MEMORIA IKERKETAK NARRATOLOGIA KULTURALAREN IKUSPEGITIK

**Tesiaren egilea:** Amaia Serrano Mariezkurrena

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

**Saila:** Hizkuntzaren eta literaturaren didaktika

**Tesi-zuzendaria:** Jon Kortazar Uriarte (UPV/EHU) eta Ur Apalategi Idirin (UPPA)

**Tesiaren laburpena:**

1936ko Gerrak euskal gizartean utzitako arrastoa handia izan da. Literaturak ere hartu du hizpide gertakari historiko hura, eta euskal eleberrigintzak beraren inguruan ibilbide propioa egin du. Horregatik, ikerlan honek lau helburu izan ditu:

1. Eleberriek gerrarekiko agertutako interesa hura gogoratzeko sorturiko ekimen politiko-sozialekin bat garatu den ikustea,
2. Gerraren irudikapenak zein ikuspegitatik eraiki diren aztertzea,
3. Euskal eleberrigintzari ekarpenik egin dion egiaztatzea,
4. Eleberrietako gerraren funtzio narratiboa zehaztea.

1936ko Gerrari buruzko euskal nobelagintzak azpigenero gisa izan duen bilakaera aztertzeko, marko teorikoan Memoria Ikerketen zenbait kontzepturen inguruko eztabaidak ekarri ditugu, eta horietako batzuk gure testuingurura egokitu; izan ere, jabetu gara kontzeptuon sortze-testuinguruak asko markatu izan dituela. Horrez gain, gizartean 36ko Gerraren oroitzapen-prozesu publikoak zeren arabera eta noiz sortu diren azaldu dugu, gai horri buruzko euskal nobelagintzaren ibilbidea harekin konparatzeko. Nobelen azterketarako, Memoria Ikerketen ekarpenaz gain, narratologia kulturala ere baliatu dugu, eta euskal eleberriaren historiari jarraikiz, 36ko Gerraz diharduten obrak kronologikoki aztertu ditugu, ondorioetan gerrak obra bakoitzean duen funtzioaren arabera nobelen sailkapena egiteko.

Ikerlanaren asmoen arabera, emaitzek ondorengo hau erakutsi dute: lehenik, 36ko Gerrari buruzko euskal eleberriak dinamika soziopolitikoei hamarkada bat aurreratu zaizkiela, segur aski generoaren ibilbideak ekarritako barne-logikaren ondorioz, eta jada 90eko hamarkadan gerrari buruzko diskurtsoak eraiki zituztela. Bigarrenik, diskurtso literarioak, oro har, euskal nazionalismoaren ildokoak izan

zirela 90eko hamarkadara arte, baina une horretatik aurrerako nobela gehienak joera horrekiko kritiko azaltzen direla. Hirugarrenik, nobela hauek egin diotela ekarpenik euskal eleberrigintzari, bereziki azpigenero literario berri bat osatu dutelako (eleberrri historiko berri bat), nahiz eta orokorrean haren ibilbideko korrante literarioei jarraitzen dieten. Azkenik, jabetu gara ezen, 36ko Gerraren kontaktetaren funtzioa irizpidetzat hartuz, sailkapen tipologiko berri bat egin daitekeela, eta gerraz diharduten nobelak hiru multzo handitan bereizi daitezkeela: *funtzio aldarrikatzaileko nobelak* (zeinen ezaugarri nagusiak hauek diren: egitura lineala, narratzaile-editorearen bidez egile inplizituaren ageriko asmoa, fikzio- eta narrazio-denbora bakarra, eta diskurtso frankistaren kontra egiteko gobernu nazionalistaren hautua eta gudariak goraiatzea), *funtzio deskriptiboko nobelak* (zeinetan historiografia berriaren kontaketa-moldea itxuratzen den, garai historikoaren deskribapena egiten den, egile inplizituaren kritika ironiaren bidez egiten den, dikotomiak saihesten diren, etab.) eta *funtzio literarioko nobelak* (zeinetan bi plano narratibo dauden eta horrek metafikzioa eta gogoeta ahalbidetzen dituen, irudimena egia historikoa jakiteko ezintasunaren estrategiatzat hartzen den, eta iragana eraikitzea bera problematizatu egiten den). Izendapen hutsa izatetik haratago, bakoitzak ezaugarri jakin batzuk ditu, eta, corpuseko nobelak ez ezik, hortik kanpo geratu diren beste batzuk ere sailkapen horretan kokatu ahal izateak tipologiaren baliagarritasuna erakusten duelakoan gaude.